

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 528/2021 Erabakia, irailaren 14koa. Onestea kontzejuetako batzarburuen eta batzarkideen hauteskundeetarako deialdia 2021eko azaroaren 21erako

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidoreak eta kideak hautatzeko foru arauak, zeina 1984ko uztailaren 30ean onartu baitzuten Batzar Nagusiek, 6. artikuluan ezartzen du kargu horietarako hauteskundeetarako deialdia Foru Aldundiak egin behar duela.

52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta

Araubide Juridikoari buruzkoak, 5.6) artikuluan, Diputatuen Kontseiluari esleitzen dio kargu horietarako hauteskundeetarako deia egiteko eskumena..

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orokaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, erabaki hau hartu dugu,

ERABAKIA

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko errejidoreak eta kideak hautatzeko hauteskundeetarako deialdia egitea.

Bigarrena. Hauteskunde horiek 2021eko azaroaren 21ean egingo dira.

Hirugarrena. Lurralde Orokaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza eta xedapen jaulki ditzan hauteskunde prozesuaren alderdi eta gorabehera guztiak ondo bidera daitezen.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA